



DERIOKO UDALA

Saila: Idazkaritza.

Espediente mota: Kontratazio administratiboa

Kontratazio mota: Hornidura

Mota/hornidura modalitatea: Renting.

Horniduraren xedea: Alokatzeta eta mantentzea **10 8 A motako eta 2 B motako fotokopiagailuak**

Epea: 48 hilabete

Esleitzeko prozedura: PUBLIZITATEDUN PROZEDURA NEGOZIATUA.

Tramitazio mota: ARRUNTA

Espediente zenbakia eta urtea: 215.19/2014

Dokumentu mota: PCAP.



DEGIOLKO UDALA

**ADMINISTRAZIO BALDINTZA ZEHATZEN AGIRIA, HORNIDURAK PUBLIZITATEDUN
PROZEDURA NEGOZIATU BIDEZ KONTRATATZEA: RENTING MODALITATEAN
FUNTZIO ANITZEKO HAMAR EKIPO (FOTOKOPIAGAILU) ERRENTAN HARTZEKO**

I. KONTRATUAREN EDUKIA

1. KONTRATUAREN XEDEA

Kontratuaren xedea, eranskinean zehaztutakoekin bat etorriz, hau da: **FUNTZIO ANITZEKO HAMAR EKIPO (FOTOKOPIAGAILU)**), **errentamenduaren bidez, renting modalitatean**, espedienteko dokumentazio teknikoekin bat etorriz. Espedienteak kontratu - izaera du (BTP.-Horrela III. Eranskinean adierazitakoa ikusi.).

Kodifikazioa (CPV),30121100-4 Kontratuen Hiztegi Arruntaren Nomenklaturari dagokiona

2. EPEA

Kontratuaren iraunaldia hau izango da: 48 hilabete. Kontratua formalizatu eta hurrengo egunetik hasita kontatuko da epe hori. Kontratua formalizatuko da fotokopiagailuak martxan jarri ondoren eta horien funtzionamendua zuzena dela egiaztatu ondoren.

Oharra.- Hornidura emateko, instalatzeko eta funtzionamenduan jartzeko epea hau izango da: gehienez 10 egun. Kontratua formalizatu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita kontatuko da epe hori.

Oharra.- Instalazioak honakoak ekarriko ditu: makinaren erabiltzaileen prestakuntza eta makina bakoitzari lotutako softwarean prestakuntza, eta gainbegiraketa-lanak egiteko pertsonal teknikoaren formakuntza. Parametrizazioa eta pertsonalizazioa ezarpenean (sail bakoitzerako inpresio estandarrak, postak, eskaneatu denaren destinoa, eta abar).

3. KONTRATUAREN AURREKONTUA

Kontratuaren aurrekontua hau izango da: 89.228,16 € 48 HILABETETARAKO, gehi 18.737,91 €, %21 BEZari dagozkionak. Lizitatzailleek aurrekontua hobetu dezakete. Beti ere kontuan hartuko da prezioan gastu guztiak sartuta daudela, garraio-gastuak barne.

3.1.- Kontratua honen lizitazio mota hau da: 107.966,07 euro (4 urteetarako).

3.2.- Kontratua honen prezioa, bere esleipenetik ateratzen dena izango da eta partida independente bezala zehaztuko du BEZa. Aplikagarri diren edozein motako zerga, tasa eta kanon guztiak kontratuaren prezioan sartuta daudela hartzen da, eta baita honako pleguan agertzen diren betebeharrak betetzeagatik esleipendunari sortzen zaizkion gastuak ere prezioan sartuta daudela hartuko da kontuan.

3.3.- Lizitazio honetan aurkezten badira Eranskinaren gaineko Zergatik kanpo dauden lizitatzailleak aurkezten badira lizitazio honetan, BEZari dagokion zenbatekoa adieraziko dute beraien proposamenean, eta zero euro (0,00 €) izango da.



DERIOKO UDALA

3.4.- Eskaintza ekonomikoak balioztatzeko kontuan hartuko da horien prezio garbia, hau da, BEZik gabe.

4. FINANTZABIDEAK

Kontratuaren prezioa ordaintzeko behar beste diru jarri da aurtengo ekitaldiko aurrekontuan. Halaber, eragindako hurrengo ekitaldietako aurrekontuetan behar adina kreditu jarriko ditu aurrekontu gaietan eskumena duen organoak.

Urteen araberrako banaketa hau izango da:

<u>LIZITAZIÓA</u>	<u>4 urte</u>	<u>89.228,16 €</u>
2014. urtea/ 2 hilabete		3.717,84 €
2015. urtea /12 hilabete		22.307,04 €
2016. urtea /12 hilabete		22.307,04 €
2017. urtea /12 hilabete		22.307,04 €
2018. urtea /10 hilabete		18.589,20 €
		89.228,16 €
21% IVA		18.737,91 €
		107.966,07 €

1. NOLA ORDAINDU

Prezioaren ordainketa ordaintzeko eskubidea da kontratistarentzat eta ordaintzeko betekizuna Udalarentzat. Horrela, kontratu honen esleipendunak eskubidea izango du prestazioa ordaintzeko hauen arabera: azaoaren 14ko 3/2011 Errege Lege Dekretua, maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretua, Sektore Publikoko Kontratuaren urriaren 30eko 20/2008 Legea partzialki garatzen duena, eta hitzartutako prezioaren arabera sinatuko den dagokion kontratu administratiboa.

Ordainketa egingo da Udaleko Sarrera Erregistroan dagokion faktura aurkeztu ondoren, horretarako dagokion Sailak txostena egingo du aurretik, Udal Kontu-hartzaitzaren fiskalizazioa, eta dagokion udal organoak onartu eta gero.

Kontratuaren prezioaren ordainketa dagokion kobraketa-dokumentua aurkeztu eta ontzat emandakoan egingo da.

Ordainketen aldizkakotasuna hau da: Horiek hileroko izango dira, eta hila bukatu eta gero ordainduko dira, horretarako arauko faktura aurkeztu behar da. Fakturak Administrazioaren on iritzia izango du eta transferentziaren bidez ordainduko da.

2. PREZIOAK BERRAZTERTZEA

Kontratu honek dituen ezaugarri bereziak kontuan hartuta, eta SPKLTBaren 89.2 artikulua xedatzen duenarekin bat etorritik, kontratu honetan ez da bidezkoa prezioak



DERIOKO UDALA

berraztertzea, prezio-indizeen balorapena kontuan hartu delako kontratuaren epe osorako prezioak finkatu izan direnean, Beraz, esleipendunak berariaz eta guztiz eta erreserbarik gabe uko egiten dio gai honetaz edozein asmori.

3. BERMEAK

Kontratuaren esleipendunak behin betiko bermea eman beharko du, hartutako konpromisoak beteko dituela bermatzeko. Kopuru hori esleipeneko zenbatekoaren % 5ekoa izango da, BEZ gabe.

Berme hori jartzeko epea egutegiko 10 egunekoa izango da, 22. baldintzan aipatutako eskakizuna jasotzen duen egunetik kontaktzen hasita. Bermea jartzeko bidea, berriz, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 96. artikuluan azaltzen direnetatik edozein izan daiteke. Bermea eratu dela egiaztatzeko bitarteko elektronikoa, informatikoa edo telematikoa erabil daitezke. Baldintza hori ez bada betetzen lizitazioarekiko egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, Udalak ez du esleipena bere alde egingo.

Berme-epaia amaitzen denean, esleipendunari bermea itzuliko zaio, osorik edo, bidezkoa bada, zati batean, baldin eta kontratuko betebeharrak guztiak beterik badaude. Itzulketa hori goian aipatutako Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 102. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik egingo da.

4. KONTRATUA BURUTZEA

Baldintza-agiri honetan ezarritako orduan eta lekuan aurkeztu beharko dira ondasunak, xehetasun tekniko eta administrazio-baldintzekin bat etorritik. Dena dela, Udalak, kontratuak dirauen bitartean, hitzartutakoa ez, beste leku bat aukera dezake.

Kontratua kontratistaren gain eta kontura burutuko da, eta kontratistak ez du kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango, hornidura Udalarik eman baino lehen ondasunetan galera, matxura edo kalteak izateagatik, beti ere, Udala berandutzean erortzen ez bada ondasunak hartzeko garaian.

Kontratua Udalaren zuzendaritza, ikuskapen eta kontrolaren pean burutuko da, eta Udalak idatziz nahiz ahoz erabili ahal izango ditu ahalmen horiek.

Kontratistari edo haren agindupekoari egotz dakiekeen egite edo ez-egiteren baten ondorioz, Udalak uste izaten badu kontratua behar bezala burutzea kolokan dagoela, kontratua behar bezala burutu dadin beharrezkotzat jotzen dituen neurriak har daitezela agindu ahal izango du.

5. KONTRATISTAREN LAN EGINKIZUNAK

Kontratistak lanaren, Gizarte Segurantzaren eta laneko segurtasun eta higienearen arloan indarrean dauden legezko xedapenak bete behar ditu. Udalak ez du inolako erantzukizunik izango xedapen horiek betetzen ez badira.



DEGIKO UDALA

6. KONTRATISTAREN ERANTZUKIZUNA KONTRATUA BURUTZERAKOAN BESTE BATZUEI KALTEAK ERAGITEN BADIZKIE

Kontralistaren ardura da hornidura-eragiketen ondorioz sor litezkeen kalteak eta galerak bere gain hartzea, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 214. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz.

7. KONTRATUA ALDATZEA

Herri-onurako arrazoiak direla eta, Administrazioak kontratua aldatzea izango du SPKLTBaren 107 artikuluan jasotako egoeraren bat gertatzen bada beti ere, lizitazioaren eta esleipenaren funtsezko baldintzak aldatzen ez badira.

Lehen aipatutako aldaketak derrigorrezkoak izango dira kontratistarentzat.

8. HORNIDURA HARTZEA ETA BERME EPEA

Hornidura eman eta, gehienez, hilabete pasa baino lehen, horniduraren harrera formala eta positiboa egingo da.

Hornidura jasotzeko moduan ez badago, hori berariaz agerraraziko da eta kontratistari jarraibideak emango zaizkio akatsak zuzentzeko edo hornidura berria emateko, hitzartutakoaren arabera. Akatsak zuzentzen ez baditu, edo hornidura berritzen ez badu, Administrazioak kontratistaren kontura utziko du hornidura. Horiek horrela, Administrazioak ez du ordaindu beharko, edo ordaindutakoa berreskuratzeko eskubidea izango du.

Gainera, URTE BATEko epea egongo da, harrera formalaren egunetik hasita zenbatu beharrekoa, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuan eta Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorrean adierazitako ondorioetarako.

Udalak, berme-epean, akatsak dituzten hornidurak berritu edo konpondu daitezela eskatzeko eskubidea izango du.

Berme-epean, jasotako hornidurak, kontratistaren akatsen ondorioz, helbururako egokiak ez direla konturatzen bada Udala, eta susmatzekoa bada akatsak konponduta edo hornidura berria emanda nahikoa izango ez dela, Udalak atzera bota ditzake hornidurak, kontratistaren kontura utziz.

9. KONTRATISTARI EZARRI BEHARREKO ZIGORRAK BALDINTZAK BETETZEN EZ BADITU

A. KONTRATUA BURUTZEKO EPEAK EZ BETETZEA

Kontralistak, bere erruagatik, kontratua burutzeko epe osoa edo epe partzialak igarotakoan burutu gabe baditu epe horietan egin beharreko obrak, Administrazioak bi aukera izango ditu: kontratua bertan behera utzi eta bermea bereganatzea, edo obrak



DERIOKO UDALA

burutu arte igarotzen den egun bakoitzeko diru-zigorra ezartzea: egunean 0,20 euro kontratuaren prezioaren 1.000 euroko.

Lanak garaiz burutu ez izanagatik zigorra kontratuaren prezioaren 100eko 5aren multiplo bat izatera iristen den bakoitzean Kontratazio Organoak kontratua eteteko eskumena du, edo kontratuaren jarraipena adosteko, zigor berriak ezarrita.

B. PRESTAZIOEN BURUTZAPEN PARTZIALA EZ BETETZEA

Kontratastak, bere erruagatik, kontratuko prestazioen burutzapen partziala epean bukatzen ez badu, Udalak bi aukera izango ditu: kontratua bertan behera uztea edo kontratuaren prezio osoaren 100eko 10eko diru-zigorra ezartzea.

C. KONTRATUA BURUTZEAN AKATSAK EGITEA

Prestazioa burutzean akatsak izan badira, Udalak kontratuaren aurrekontuko zenbatekoaren % 10eko diru-zigorra ezartzeko aukera izango du.

D. KONTRATUA GAUZATZEKO BALDINTZA BEREZIAK EZ BETETZEA

Lanak burutzean 8. klausulan adierazitako gizartearen edo ingurumenaren arloko baldintza bereziak betetzen ez badira, Udalak kontratuaren aurrekontuko zenbatekoaren % 10eko diru-zigorra ezartzeko aukera izango du.

E. KAUDIMEN KONPROMISOAK EZ BETETZEA

Kontratastak bere eskaintzan adierazitako bitarteko materialak eta langileak erabiltzeko betebeharra ez badu betetzen, 19. klausulan adierazi bezala, Administrazioak kontratuaren aurrekontuko zenbatekoaren % 10eko diru-zigorra ezartzeko aukera izango du.

10. KONTRATUA AMAITZEKO ARRAZIOAK

Hornidura-kontratua amaitzeko arrazoiak Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 223 eta 299. artikuluetan azaltzen direnak izango dira.

11. ADMINISTRAZIOAREN ESKUDUNTZAK

Udalari dagokio a) kontratua interpretatzea, b) kontratuan sor daitezkeen zalantzak ebaztea, c) herri-onurako arrazoiengatik kontratua aldatzea, d) kontratuari amaiera ematea eta amaiera horren ondorioak zehaztea, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuan eta Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorrean ezarritako muga, baldintza eta ondorioei eutsiz.

II.- KONTRATATZEKO PROZEDURA

12. ESLEIPENAREN PROZEDURA

Kontratu honen esleipena publizatedun negoziazio bidez egingo da, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 169.etik 178. artikulura ezarritakoarekin bat etorriz.



DERIOKO UDALA

Parte-hartzaileekin izango den negoziazioa kontratuaren xedearekin zuzenean lotutako beste edozein alderdi ekonomiko, tekniko edota logistikoren ingurukoa izan daiteke.

13. KONTRATAZIO MAHAIA

Lizitazio honetarako osatu den Kontratazio Mahaia honako kide hauek osatuko dute:

Mahaiburua: Alkatea.

Mahaiko kideak: Lehenengo alkate ordea, bigarren alkate ordea, idazkaria eta kontu-hartzailea

Idazkaria: Aholkulari Juridikoa

14. KONTRATATZEKO GAITASUNA

Zuzenbideko eta jarduteko gaitasuna duten pertsona fisiko zein juridikoek parte hartu ahal izango dute kontratazio-jardunbide horretan, baldin eta beren kaudimena eta fidagarritasun tekniko edo profesionala frogatzen badituzte, eta kontratatzeke debekuren bat ez badute, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 60. artikuluan adierazitako arrazoiak direla eta. Kaudimena egiaztatzeke eta ebaluatzeke bideak 19.h) baldintzan ezarritakoak izango dira.

Pertsona fisiko edo juridikoek beren kabuz edo baimendutako ordezkarien bitartez kontratatu ahal izango dute. Ordezkariak kontratatuz gero, berariaz emandako ahalorde askietsia erabili beharko dute. Pertsona juridiko baten ordezkari baten kideren bat azaltzen denean, ordezkari izateko ahalmena duela frogatu beharko du agiri bidez. Bi kasuetan ere, kontratatzeke gaitasunik eza dakarten arrazoiak, gorago aipatutakoak, ordezkariari ere aplikatu behar zaizkio.

Enpresariak, gainera, kontratu hau burutzeko eska daitekeen enpresa- edo profesio-gaitasuna izan beharko dute.

15. PARTE HARTZEKO ESKAERAK AURKEZTEA

Kontratazio honen espedientea, bai eta horrekin batera doan dokumentazio tekniko ere, honako lekuan, ordutegian eta epean aztertu ahal izango da: LEKUA: Administrazio honetako idazkaritzan. ORDUAK: 09:00 - 13:00. EPEA: Egun baliodunetan, kontratu honen iragarkia kontratatzailearen profilean argitaratu eta biharamunetik hasita. Iragarki hori ondoko atari informatikoan edo webgunean eskuratu ahal izango da: www.deriooudala.net.

Proposamenak aurretik adierazitako lekuan eta ordutegian aurkeztuko dira, egutegiko 22 eguneko epean, aipatu iragarki hori argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Kontratatzailearen profilean, baldintza-agiriak eta dokumentazio osagarria eskuratzeko aukera egongo da.



DEGIKO UDALA

Hautagaiak eskatutako baldintza-agiriei eta dokumentazio osagarriari buruzko informazio gehigarria parte hartzeko eskaerak edo proposamenak hartzeko data iraungi aurreko sei egunetan, gutxienez, beti ere lizitazioaren epea iraungi baino gutxienez zortzi egun lehenago egindako eskariak badira

SPKLTBaren 158.3 artikuluan xedatutakoaren arabera, baldintza-agiriei eta dokumentazio osagarriari buruzko informazio gehigarria aipatutako epeen barruan entregatzerik izan ez bada, edo eskaintzak egiteko alde aurretik lanen tokian bertan bisita egin behar bada edo baldintza-agiriari erantsitako dokumentazioa "in situ" kontsultatu behar bada, parte hartzeko eskaerak edo proposamenak jasotzeko epea luzatu egingo da, hautagai guztiek beharrezkoa duten informazioa jaso dezaten ahalbidetzeko adina.

Ez dira onartuko epe horretatik kanpo aurkezten diren eskabideak, nahiz eta postetxean epea amaitu baino lehen bidali. Dena dela, eskabidea onartu egingo da baldin eta epe barruan bidali zela egiaztatzen bada. Horretarako, lizitatuzaileak, eskabidea bidaltzen duen egunean bertan, posta-egiaztagiria bidali beharko dio kontratazio-organoari telekopiaz, faxez, telegramaz edo posta elektronikoz. Posta elektronikoz bidatzen badu, baliozkoa izan dadin, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Araudi Orokorraren 80.4 artikuluan ezarritakoa bete beharko du.

Prozeduran parte hartzeko, lizitatuzaileek kartazal bat aurkeztu beharko dute itxita. Kartazalean testu hau idatziko da:

"FUNTZIO ANITZEKO HAMAR EKIPO (FOTOKOPIAGAILU) HORNITZEKO ERRENTAMENDU BIDEZ, RENTIG MODALITATEAREN KONTRATAZIOAN NEGOZIAZIO BIDEZKO PROZEDURAN PARTE HARTZEKO

Kartazalean enpresaren izena eta parte hartzeko eskabidearen izenpetzailearen izen-abizenak adieraziko dira, noren izenean izenpetzen duen zehaztuz. Kartazalak ere izenpetuta egon beharko du.

Hona hemen kartazalean aurkeztu beharreko agiriak:

- a) Hautagaiak edo bere ordezkariak **I. Eranskinean** xedatutako ereduaren arabera idatzitako eskaera sinatua.
- b) Lizitatuzailearen edo haren ordezkariaren nortasun-agiriaren fotokopia. Gainera, beste pertsona edo erakunde baten izenean badihardu, notario-ahalordea aurkeztuko da eta erakunde honek askietsiko du kartazal horretan aurkeztutako agiriaren sailkapen-prozesuan.
- c) Lizitatuzailea pertsona juridikoa izanez gero, eratze- edo aldaketa-eskritura aurkeztuko du, behar bezala inskribaturik Merkataritza Erregistroan eta identifikazio fiskaleko zenbakian, inskripzioa derrigorrezkoa baldin badu, aplikatu behar zaion merkataritzako legeriaren arabera. Hala ez bada, eraketaren, estatutuen edo fundazio-egintzaren eskritura edo agiria aurkeztuko du jarduteko gaitasuna duela frogatzeko. Agiri hori erregistro ofizial egokian inskribaturik egongo da, hala behar denean, eta bertan agertuko dira lizitatuzailearen jarduera zuzentzen duten arauak.



DEGIKO UDALA

Enpresariak espainiarrak ez badira baina bai Europako Erkidegokoak, lanbide- edo merkataritza-erregistroko inskripzioaren egiaztagiria aurkeztu beharko dute, beren estatuko legeriak inskribatu beharra ezartzen baldin badie.

Bestelako enpresari atzeritarren jarduteko gaitasuna Espainiak dagokion Estatuan duen Diplomaziako Misio Iraunkorraren edo enpresaren egoitza hartzen duen lurralde-eremuko Kontsul Bulegoaren txostenaren bidez frogatuko da.

d) Lizitzaileak erantzukizunpeko berariazko aitortena aurkeztu behar du, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 60. artikuluan kontratatzeke ezarritako debekuetatik bat bera ere ez duela agertzeko. Aitorpen horretan berariaz adieraziko du kitaturik dituela zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, indarrean dauden xedapenek ezarritakoak; edo, hala egiten ez badu, egiaztagiriak aurkeztuko ditu, betebeharrak horiek beterik dituela frogatzeko

e) Ekonomi Jardueren gaineko Zergan, kontratuaren xedari dagokion epigrafean hain zuzen ere, alta eman diotela frogatzeko, lizitzaileak alta-agiria aurkeztuko du, uneko ekitaldian bertan hartua badu, edo EJZren azken ordainagiria, gainerako kasuetan. Beti ere, zerga horren matrikulan bajarik hartu ez izanaren erantzukizunpeko adierazpena erantsiko du.

f) Hainbat enpresak lehiaketara jotzen badute aldi baterako enpresa-batasuna eratuz, taldekide bakoitzak bere gaitasuna eta kaudimena frogatu beharko ditu aurreko puntuetan ezarritakoaren arabera. Esleipena lortuz gero AEB formala eratzeko konpromisoa agertu beharko dute enpresa guztiek. Bestaldetik, aldi baterako enpresa-batasuneko kide bakoitzak kontratuaren zein zati egingo lukeen adierazi beharko dute proposamenean, kide bakoitzaren kaudimen-baldintzak zehaztu eta egiaztatu ahal izateko.

g) Atzerriko enpresak badira, Espainiako epaitegi edo auzitegien menpe jarriko direla adierazi beharko dute, kontratuarekin zuzen edo zeharka zerikusia duten gorabehera guztietarako, eta, hala egokituz gero, lizitzaileari legokiokeen atzerriko jurisdikzioari uko egingo lioketela.

Lehiatzailearen ekonomi eta finantza-kaudimenaren eta gaitasun tekniko edo profesionalaren frogagiriak. Horretarako, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 75. artikuluko .a) eta c) letretan eta 77. artikuluko .a) letrean ezarritako bideetatik edozein erabili ahal izango da.

i) Prozedura horren ondorioz sortzen diren jakinarazpenak egiteko helbide elektronikoa, SPKLTBaren 151.4 xedatutakoaren arabera.

Goiko b), c) eta f) puntuetan adierazitako baldintzak ziurtatzeko Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten eta Sailkatutako Enpresen Erregistro Ofizialeko ziurtagiriarekin, Estatuko Lizitzaileen eta Sailkatutako Enpresen Erregistro Ofizialeko ziurtagiriarekin, edo Europar Batasuneko sailkapen-ziurtagiri batekin, SPKLTBaren 84. artikuluko xedatutakoaren arabera. Aipatu ziurtapenarekin batera, adierazitako egoerak aldatu ez direla ziurtatzen duen lizitzailearen ardura-adierazpena ere gehitu beharko da.



DERIOKO UDALA

Aurreko atalean aipatutako ziurtapena elektronikoki eman daiteke.

Jatorrizko agiriak edo kopiak aurkez daitezke. Kopiak aurkeztekotan, aurretik Administrazioak edo notarioak behar bezala kautotu edo egiaztatu behar ditu. Aipatu agiriak fotokopia hutsean ere aurkez daitezke baina, kasu horretan, lehen sailkatuak fotokopia horiek benetakoak direla erakutsiko du jatorrizkoak emanez.

16. ENPRESAK AUKERATZEA ETA ESKAINTZA AURKEZTEKO GONBIDAPENA

Mahaiak parte hartzeko eskabidean jasotako agiriak sailkatuko ditu. Horretarako, lizitzaileen gaitasun eta kaudimenari buruzko argibideak edo agiri osagarriak eska daitezke. Mahaiak, horretarako, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorreko 22. artikuluan adierazten den eran jardungo du, bost egun naturaleko epean. Mahaiak interesdunei ahoz eskatu behar dizkie argibide eta agiri osagarri horiek, eta gainera eskaera idatzia jarri behar du kontratazio-organoaren iragarki ohelean eta kontratatzailearen profilean. Era berean, lizitzaileek aurkeztutako agirietan zuzentzeko moduko akatsak agertzen badira, Mahaiak ahoz eta iragarki bidez emango die horren berri lizitzaileei, eta hiru egun balioduneko epea jarriko die, aipatutako Araudiko 81. artikuluan, akatsak zuzen ditzaten.

Baldintza-agiri honen 18. eta 19. baldintzetan xedatutakoaren arabera eskatzaileen nortasuna, gaitasuna eta kaudimena berretsita, kontratazio-mahaiak hurrengo fasera pasako direnak hautatuko ditu eta eskaintza aurkezteko gonbidapena egingo die HAMABOST egun naturaleko epean, gonbidapen-idazkia posta elektronikoki bidez bidali eta hurrengo egunetik aurrera kontatzen hasita.

17. PROPOSAMENAK AURKEZTEA ETA PARTE HARTZAILEEKIN NEGOZIATZEA

Gonbidatutako enpresek kartazal bakarria aurkeztu beharko dute. Kartazalean honako hau idatziko da: **“FUNTZIO ANITZEKO HAMAR EKIPO (FOTOKOPIAGAILU) HORNITZEKO ERRENTAMENDU BIDEZ, RENTIG MODALITATEAN KONTRATATZEKO NEGOZIAZIO BIDEZKO PROZEDURAN PARTE HARTZEKO PROPOSAMENA”**.

Kartazalean enpresaren izena eta proposamen-izenpetzailearen izen-abizenak adieraziko dira, noren izenean izenpetzen duen zehaztuz. Kartazala ere izenpetuta egongo da.

II. Eranskinean datorren ereduaren arabera diru-proposamena duen kartazala.

Eskaintzak jaso ostean, hala badagokio, negoziazio-fasea irekiko da kontratuaren xedari lotutako beste edozein alderdi ekonomiko, tekniko edota logistikoren inguruan, gutxieneko baldintza teknikoek bat egingo dute dira **III: Eranskinean** adierazitakoekin.

Negoiazioa amaitzean, baldintzak aldatzeko konpromisoa hartu dutenek azken eskaintza aurkeztu beharko dute, ekonomikoki eskaintzarik onuragarriena zein den balioetsi eta hautatzeko.



DERIOKO UDALA

18. ESLEIPENA, FORMALIZAZIOA ETA GASTUAK

Proposamenak ikusirik, eta, egoki denean, lizitatuzaileekin negoziazioak egin ondoren, Kontratazio Mahaiak lizitatuzaileen eskaintzak balioetsiko ditu. Horretarako, beharrezkoak diren txosten teknikoak eskatu ahal izango ditu, ordena beherakorrean sailkatuko ditu eta kontratazio-organoari esleipena proposatuko dio; bertan, kontratuko behin betiko xedeak zehaztu eta finkatuko dira.

Esleipenaren aurretik, hala badagokio, lehen sailkatuari, errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik aurrera kontatzen hasita hamar egun balioduneko epean, honako ekintzak egin ditzala eskatuko zaio:

- a) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak beterik dituela frogatzen duten agiriak aurkeztea edo kontratazio-organoari egoera hori horrela dela ziurtatzeko modu zuzena lortzeko baimena ematea. Ez da beharrezkoa izango agiri horiek berriz ere aurkeztea proposamenarekin batera aurkeztu baditu.
- b) Kontratua burutzeko beharrezkoak dituen bitartekoak eskuratzeko konpromisoa betetzen duela ziurtatzeko agiria aurkeztea, baldintza-agiri honen 19. klausulako h) letraren arabera
- c) Behin betiko bermea eratu denaren egiaztapena aurkeztea, hala badagokio.
- d) Jatorrizko agiriak aurkeztea, parte hartzeko eskaera osatzen duen kartazalean fotokopia hutsak aurkeztu badira

Errekerimendua ez bada aipatutako epean behar bezala betetzen, lizitatuzaileak eskaintza baztertu duela ulertuko da eta, kasu horretan, dokumentazio bera eskatuko zaio hurrengo lizitatuzaileari, eskaintzen sailkapenaren arabera.

Eskatutako agiriak jasota, kontratazio-organoak kontratuaren esleipena adostuko du, lizitatuzaile guztiei jakinaraziko die eta Erakunde honen kontratatuzailearen profileen argitaratuko da.

Kontratua, lizitazioaren baldintzetara zehatz-mehatz egokituko den administrazio-agiri gisa formalizatuz burutuko da eta aipatu agiria nahikoa izango da edozein erregistro publikotan sartzeko. Hala ere, kontratistak kontratua publikoki aurkezteko eskaera egin dezake eta horri dagozkion gastuak bere kontura izango dira.

Esleipenaren jakinarazpenean adierazitako epean, zeina ezingo den 15 egun baliodun baino gehiagokoa izan, esleipendunak honakoak egingo ditu:

- a) Administrazio honen bulegoetara etortzea, kontratua administrazio-agiri gisa formalizatzeko.
- b) Aldizkari ofizial eta, hala badagokio, argitaraldi bakar bateko publizitate ofizialeko gastuak ordaintzea. Gastu horien zenbatekoa 150 € izango da, gehienez.

III.- IZAERA, ERREGIMEN JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA

19. KONTRATUAREN IZAERA ETA ERREGIMEN JURIDIKOA



DERIOKO UDALA

Baldintza-agiri honen arabera egingo den kontratuak administrazio-izaera izango du eta baldintza-agiri honen eta atxikitako gainerako agiri teknikoaren arabera burutuko da. Bertan zehazten ez den guztiari dagokionez, hauetan xedatutako arauak beteko dira: Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuak onartzen duen, azaroaren 14ko, 3/2011 Errege Legegintza Dekretua; Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legearen zati bat garatzen duen maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretua; urriaren 12ko 1098/200a Errege Dekretuak onartzen duen Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorra, 3/2011 EDLaren aurka ez doan arauetan; eta, hala badagokio, Herri Administrazioen kontratazioan erabili beharreko gainerako arauak.

Administrazio Baldintza Zehatzen Agiri honen eta espedientearekin batera doan dokumentazio teknikoaren artean kontraesanak izanez gero, agiri honetan zehaztutakoa nagusituko da.

20. DATU PERTSONALEN BABESA

Kontratazio honen bitartez datu pertsonalak eskuratzen badira, kontratatzaileak SPKLTBaren Hogeita Seigarren Xedapen Gehigarrian adierazitakoak bete beharko ditu, Datuen Babeserako abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan eta hori garatzen duten arauetan xedatutakoak biltzen baitira bertan.

21. JURISDIKZIO ESKUDUNA

Kontratu honen ondorioz sor daitezkeen gai eztabaidagarriak kontratazio-organoak ebatziko ditu eta organoak erabakitakoek administrazioaren bideari amaiera emango diote, hala badagokio, SPKLTBaren 40. artikulutik 49. artikulura xedatutakoaren arabera, edo Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean araututako edozein artikuluren arabera, kontratazioaren alorrean errekurtsio berezia jartzeko aukeraren aurka egin gabe.

Derio, 2014ko irailaren 18a



DERIOKO UDALA

I. ERANSKINA. PARTE HARTZEKO ESKABIDE EREDUA

Lizitatuzailearen datuak: Izen-abizenak
..... Helbidea
..... Posta kodea,
NAN zenbakia, Telefonoa Helbide
elektronikoa..... Ordez kariaren datuak (ordezkaririk egonez gero):
Izen-abizenak Helbidea
..... Posta kodea, Telefonoa
..... NAN edo IFK zenbakia (pertsone fisiko edo juridikoa denaren
arabera), prozedura negoziatu bidez
kontratatzeko asmoz k deitutako prozeduraren berri izan dudala,
ESKATZEN DUT: Prozeduran parte hartzeko onartua izatea eskaintza aurkezteko
bide emanez, eskatzen diren kaudimen-baldintzetan oinarrituta; agiri bidez frogatzen
dut baldintza horiek betetzen ditudala.

....., 20....(e)ko aren(a)

Izenpea



DEGIKO UDALA

II. ERANSKINA. LIZITATZAILEEK AURKEZTUTAKO PROPOSAMENEK JARRAITUKO DUTEN DIRU PROPOSAMEN EREDUA

Lizitatzaiaren datuak: Izen-abizenak
..... Helbidea
..... Posta kodea, NAN
zenbakia, Telefonoa Helbide
elektronikoa....., zuzenbideko eta jarduteko gaitasun osoarekin.
Ordezkararen datuak (ordezkaririk egonez gero): Izen-abizenak
..... Helbidea
..... Posta kodea,
Telefonoa NAN edo IFK zenbakia (pertsona fisiko edo juridiko
denaren arabera), kontratatzeko asmoz
..... k dei egindako prozedura negoziatu bidezko kontratazioan parte hartzeko
gonbita jaso dudala, hona hemen nire ADIERAZPENA

1) Hitz ematen dut kontratua honako prezio honetan burutuko dudala: €,
gehi €, azken kopuru hori BEZaren %ari dagokiona. Emateko
epea hau izango da: Prezioaren barruan gai guztiak sartzen dira
gastu guztiak, baita garraioari dagozkionak ere.

2) Administrazio-baldintza zehatzen agiria eta kontratu hau arautu behar duten
gainontzeko agiriak ezagutzen ditut. Horiek horrela, neure gain hartu eta ontzat hartzen
ditut oso-osorik.

3) Ordezkatzen dudan enpresak, ireki, instalatu eta jarduteko indarrean dagoen araudiak
eskutzen dituen baldintza guztiak betetzen ditu.

....., 20....(e)ko aren(a)

Izenpea



DEGIKO UDALA

III. ERANSKINA- FOTOKOPIAGAILUEK BETE BEHAR DITUZTEN GUTXIENEZKO BALDINTZAK

OINARRIZKO EZAUGARRI TEKNIKOAK:

Eskaintzen analisiak balorazio bat aintzat hartuko du, eskainitako makinen oinarrizko ezaugarrien arabera, eta ondokoak dira.

TIPO A, funtzio anitzeko ekipoa, KOLOREA A3

EKIPOAREN EZAUGARRIAK
KOPIA/INPRIMATZEA/ESKANEATZEA: ZURI BELTZ/KOLOREZ
ABIADURA KOPIA INPRIMATZEKO: 35 PPM
ELIKAGAILU AUTOMATIKOA ORIGINALAK BI ALDETARA: 100 orri
PAPERAREN NEURRIA: A6 – SRA3
PAPERAREN GUTXIENeko EDUKIERA – 1200 orri
PAPERAREN GRAMAJEA: 52 – 256 g/m ²
PAPERAREN SARRERA-ERRETILUA: 3
ESKANEATZEA KOPIATZEA ETA INPRIMATZEA ALDE BIETARA KOLOREZ
ESKANEATZE ABIADURA > 50 ipm
BIDALTZEA: SMB,E-MAIL, FTP ETA TWAIN
ESKANEATZE ARTXIBO-FORMATUA: JPG/TIF/XPS
ESKANEATZE ARTXIBO-FORMATUA: PDF /PDF-1A/ PDF KONPRESIO HANDIA /PDF TESTUAREN BILAKETAREKIN
ESKANEATZEA DOKUMENTU EDITAGARRIRA: OFFICE OPEN XML (POWERPOINT/WORD)
SAREA : 10/100/1000
USB KONEKTIBITATEA
INPRIMATZE HIZKUNTZA: PCL-5 / PCL-6
SAILKAPENA TXANDAZ
FAX TXARTELA (1 Ekipo)
BIRBIDALTZEA FAXa -MAILera EDO SMB
RAM MEMORIA: Gutxienez 2.5 GB
DISKO GOGORRA: Gutxienez 250 GB
GURPILDUN ALTZARIA

ERABILERAREN KONTROLA
KOPIAREN ERABILTZAILEA IDENTIFIKATZEA /INPRIMAKETA / ESKANER : PIN (AUKERA TXARTELA)
KOLOREAREN ERABILERA MUGATZEKO AUKERA: KOPIA ETA INPRIMAKETA
ERABILERAREN ESTADISTIKAK: ERABILTZAILEZ ETA DISPOSITIBOZ
DIREKTORIO AKTIBO INTEGRATZEA
INPRIMAKETA SEGURUA: ERABILTZAILE BAKOITZAK BERE LANAK BAINO EZ DITU IKUSIKO, ETA DISPOSITIBOAN GERATUKO DIRA ERABILTZAILEA IDENTIFIKATU ARTE

**DEGIKO UDALA**

FUNTZIOAK MUGATU ERABILTZAILEZ

FUNTZIO AURRERATUAK

HODEIRA ESKANEATZEKO ETA INPRIMATZEKO AUKERA

INPRIMATZEA ETA ESKANEATZEA MUGIKORREKO GAILUTATIK

MANTENAMENDUA

URRUNETIK MONITORIZAZIO ZERBITZUA : 24 X 365 TONER ETA GERTAKARIAK

GARRANTZIZKO EZAUGARRIAK

TEC (KONTSUMO ELEKTRIKOA ASTERO)

AUKERA DRIVER EUSKARAZ IZATEKO SAILEKO EKIPOETAN

B MOTA, funtzio anitzeko ekipoa, KOLOREA A4**EKIPOAREN EZAUGARRIAK**

KOPIA/INPRIMATZEA/ESKANEATZEA: ZURI BELTZ / KOLOREZ

ABIADURA KOPIA INPRIMATZEA: 28 PPM

ELIKAGAILU AUTOMATIKOA ORIGINALAK ALDE BIETARA

PAPERAREN NEURRIA: A4

PAPERAREN GUTXIENEN EDUKIERA – 350 orri

PAPERAREN GRAMAJEA: 60 – 175 g/m²

PAPERAREN SARRERA-ERRETILUA A: 2

ESKANEATZEA, KOPIATZEA ETA INPRIMATZEA: BI ALDETARA KOLOREZ

BIDALTZEA: SMB, E-MAIL, FTP ETA TWAIN

ESKANEATUAREN ARTXIBO FORMATUA: JPG/TIF/PDF

ESKANEATUAREN ARTXIBO FORMATUA: PDF KONPRESIO HANDIA/PDF TESTUAREN BILAKETAREKIN

SAREA: 10/100

USB KONEKTIBITATEA

INPRIMATZE HIZKUNTZA: PCL-5 / PCL-6

SAILKAPEN ELEKTRONIKOA

FAX TXARTELA (1 Ekipo)

BIRBIDALTZEA FAXa -MAILera EDO SMB

RAM MEMORIA: Gutxienez 750Mb

GURPILDUN ALTZARIA

MANTENAMENDUA

URRUNETIK MOTORIZAZIOAREN ZERBITZUA : 24 X 365 TONER ETA GERTAKARIAK



DEGIKO UDALA

GARRANTZIKO EZAUGARRIAK

TEC (KONTSUMO ELEKTRIKOA HILERO)

Kontratuaren helburuak:

Honako hornidura emango da, A MOTAKO 8 ekipo-parkea (erregistroa, kontu-hartzailletza, bake epaitegia, idazkaritza, hirigintza-kultura-talde politikoak, udaltzaingoa, liburutegia, kultur taldeak Kultur Birikan) eta B MOTAKO 2 ekipo (alkatetza eta harrera Kultur Birikan), funtzio-aniztasun kolorean eta kontsumigarrien hornidura. Eskaeraren arabera handitu daiteke A MOTAKO 2 ekipora eta B MOTAKO ekipo 1era, 2 urteko epean.

Funtzio anitzeko ekipo-parkearen mantenamendua zerbitzua emango da plegu honetan ezarrita dauden balditzen arabera.

Instalatuko diren ekipo guztien berme osoa emango da kontratuak diraun bitartean.

Zerbitzua hauek emango dira: inprimatzea, kopiatzea, eskaneatzea eta faxa.

Halaber, esleipendun enpresak, gaur egun dauden A MOTAKO 3 ekiporen subrogazioa bere gain hartuko du, horren diru kopurua da 16.848,00 euro.

Martxan jartzeak honakoak izango ditu barne:

Gailu berrien instalazioa fisikoa, eta driverrak instalatzea bezeroaren ordenagailuetan, udal honetako informatika-zerbitzuaren argibideen arabera.

Prestakuntza makinen erabiltzaileei eta makina bakoitzeko software, prestakuntza zehatza emango zaio pertsonal teknikoari ikuskapen lanak egin ditzaten.

Ezagutza ekipoaren funtzionamenduan: inprimatzea zuri/beltz eta kolorez, ezkutuko inprimaketa, faxaren erabilera, kopiatzea, eskaneatzea eta dokumentuak bidaltzea posta elektronikora.

Parametrizatzea eta pertsonalizatzea ezarpenean (inprimatze estandarrak sail bakoitzarentzat, postak, eskaneatutakoak nora, eta abar).

Ekipamendu hornituaren mantenamendu zerbitzua:

Dokumentu-ekoizpenerako ekipo-parkearen mantenamendua izango da Esleipendunaren pentzura.

Ildo horretan, zerbitzu-akordio bat finkatuko da, eta horrek ekipoen funtzionamendua bermatuko du beti. Zerbitzu Teknikoa azpikontratuan bada, hori egingo zaio eskualdeko estaldurako markaren ordezkari baimendun bati, eta horrek bere zerbitzu teknikoan trebakuntza egiaztatu beharko du.

Kontzeptu horrek Mantenamendu Zuzengarri eta Prebentibo zerbitzu bat erantsiko du etengabe, integral eta planifikatua, eta esleipendun enpresak gauzatuko du oso-osorik.



DERIOKO UDALA

Esleipendun enpresak behar diren eta adineko ordezeko piezak izan beharko ditu, ordezeko piezak ez izateagatik funtzionamendu eza ekiditeko.

Esleipendun enpresak kontratuari hasiera emango dio ordezeko piezen stockekin eta behar diren suntsikorrekin. Bere ardurapean daude kudeaketa, mantenamendua, ordezeko piezak eguneratzea eta kontsumitu diren suntsikorrak eguneratzea, eskatu diren baliabideak betetzen direla egiaztatzeko beti.

Ekipo batek instalazioen mantenamendu lanak egingo ditu normalean. Kontratudun teknikariek ekipo hori osatuko dute, eta esleipendun enpresak aukeratuko ditu adierazitako helburuak eta xedeak betetzeko.